

CASTINGA GRABATZEKO BAIMENA

Behean sinatzen duenak adierazten du badakiela bere borondatez parte hartzen duen PEREJIL ENTERTAINMENT, S.L.-k eta EUSKALDUNA JAUREGIA-PALACIO EUSKALDUNA, S.A.-k ("EKOIZLEAK") ekoizten duen "El Mago de Oz" ("LANA") lan musikalerako artisten hautaketa castingaren helburua denez, bertan egiten dituen interpretazio, lokuzio eta entsegu guztiak grabatu egingo direla, hautaketa artistikoko lanak errazteko.

Halaber, grabazio horiek EKOIZLE BIEN titulartasuneko web orrietan edo sare sozialetan erabili ahal izango dira sustapen-helburuekin. Horretarako, doan eta denbora-mugarik gabe, baimena ematen du castingean duen esku-hartzea, irudia, datu profesionalak eta ahotsa finkatu, jendaurrean jarri, eskura jarri eta banatzeko.

Era berean, sinatzaileak adierazten du ezagutzen eta onartzen duela EKOIZLE BIAK direla bere datu pertsonalen tratamenduaren arduradunak, eta jakinarazi diotela datu horiek datu pertsonalen babesaren arloan indarrean dagoen araudiaren arabera tratatuko direla, zehazki, 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduaren (GDPR) eta abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoaren (DBLO) arabera. Horretarako, honako informazio hau ematen da:

- **Tratamenduaren kudeaketa:** Casting prozesuaren kudeaketa eta hautagaiaren fitxa bat egitea.
- **Datuak gordetzeko irizpideak:** Eskainitako zerbitzua behar bezala emateko behar den gutxieneko denboran gordeko dira datuak, bai eta zerbitzuaren eta legezko beste edozein eskakizunen ondorioz sor daitezkeen erantzukizunei erantzuteko ere.
- **Datuen komunikazioa:** Zure datuak PEREJIL ENTERTAINMENT, S.L.-k, LETSGO ENTERTAINMENT S.L.-k eta EUSKALDUNA JAUREGIA-PALACIO EUSKALDUNA, S.A jakinarazi eta/edo tratatu ahal izango dituzte castinga kudeatzeko Baliteke hirugarrenek, hedabideek esaterako, LANAren sustapenean parte hartzea grabazio-prozesuan. EKOIZLEAK ez dira izango hirugarren horiek grabatutako irudien erabileran erantzule izango.

Dituzten eskubideak:

- Baimena edozein unetan kentzeko eskubidea.
- Datuak eskuratzeko, zuzentzeko, lekualdatzeko eta ezabatzeko eskubidea, bai eta datuen tratamendua mugatzeko edo haren aurka egiteko eskubidea ere.
- Kontrol-agintaritzan (Datuak Babesteko Espainiako Agentzia) erreklamazio bat aurkezteko eskubidea, tratamendua indarrean dagoen araudiarekin bat ez datorrela uste badu.

Eskubideak baliatzeko harremanetarako datuak:

Posta helbidea: Santa Engrazia kalea 31, 7. solairua. 28010 Madril eta Avda. Abando Ibarra, 4 48011 Bilbao Bizkaia.

Posta elektronikoa: privacidad@letsgocompany.com eta info@euskalduna.eus

Stua.: _____

Izen abizenak:

NAN:

Telefonia:

Helbidea:

Data: